# Deserriko karrikak

## Mikel Ibarguren

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2002 Mikel Ibarguren
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2002ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

*Enaitzentzat*

*Pertsona bati ondasun guztiak kendu ahal dizkiozu,*
*eta ez dio pertsona izateari utziko.*
*Baina uka iezaiozu aberria, hizkuntza,*
*eta orduan benetan galduta egongo da.*

Czeslaw Milosz

# EZIN GORDERIK

Eskutitz bat egingo nizuke
zure herratzeak gutunontzirik balu.
Hemen bertan altxako genuke gotorlekua
arerioak zeharka ez gaitzan.
Betiko su zaharrak darrai kaleotan,
baina galarazitako pendizak hartuko genituzke guk
gabeziari etxe bat eraikitzeko.

Zure eskuen estutasunak ez du gure errukiaren
beharrik,
helmuga gaitza da ordea hori zuretzat.
Zotz egin beste biderik ez dugu nondik jo jakiteko.
Nik jarraituko nioke zure arrastoari,
poliziek zaindu gabeko errepirak ikasiko nituzke;
behin-behineko ihesa da haatik zure gordeleku
bakarra.

Hedabideek ez dute zure aipamenik eman,
nik badakit hala ere non ez zauden.
Kanpoan euria ari du. Nora zoaz?

# SINGALANTENEA (RUE TOURASSE)

# ZUGANA

Barne lubaki honetatik ari natzaizu,
bandera zuririk ez duen saminetik.
Ahalegindu izan naiz zugana egiten baina
urrun zaude eta nire oinek ez dakite zure helbiderik.
Noizbait estaliko dira lurretenak,
amatatuko suak karriketan,
eta ohe hutsak beteko ditugu denon artean.
Ataurre ahantziak baino ez dira orain gure
oroitzapenak,
ezpain idortuetan bakantzen zait berbotsa
ondoan ez zaitudanean.
Alferrik gabiltza luzamendutan,
herriak ez baitaki zure bakardadearen berri.

Zutaz oroit egin dut arratsaren gainbeheran:
nigandik haragoko estratan gora joan zara ezer esan
gabe,
eta gau honen bestaldera hurbiltzeko tirria sentitu
dut
zure begi ilunetan gorde nadin.
Berandu da ordea barkeske hasteko.

# GALDEAK

Neurtezina da nire oinentzat
zure ihesaren luzera itzulbiderik gabea.
Etxe ondotik joan zinen orpotik erauzitako zuhaitza
nola.
Ikusten ez ditugun barne-mugak gailendu zaizkigu
eta,
mila arrazoi banitu ere etxean gelditzeko,
zurekin joanen nintzateke, eskuak zikintzeko prest
nengoke
zure ondora egitea lortzeko balitz.
Arriskatu beharra daukat estugune honen haritik.
Denok daramagu mugalari bat sakonean
ezinbestez harago garamatzana, oraindik eta
harago.

Hemen asko hitz egiten da beldurraz,
baina nork daki zeren antza duen zureak,
non oheratzen den zure logalea?;
nork daki, zeozer bada ere,
zure eztarriko min sendaezinaz,
amaierarik gabeko gau luzeez...?;

jakinen ote du norbaitek bederen
amets izaten jarraitzen duten ametsek
bizi guztirako zure exilioan?

# LANBROA
# BAIONA TTIPIAN

Zure oroimena abesti zahar baten barruan bizi dela
esaten badizut, ez da gezurra egia esatera.
«Ez nago etxean; nahi izanez gero
utzi zure mezua bip-aren ondoren»
izan da utzi duzun azken arrastoa.

Zure ahoa dasta ezinean oheratzen naiz eta
zure bisaia bustia noizbait ikusiko dudan
ustearekin jaikitzen naiz egunero.
Lanbroegi egiten du Baiona Ttipian.
Kate berean doaz hemen pozak eta zorion ezak,
behin-behinekotasunean maitatzeko aukera baino
ez baitu ematen deserriak.
Hurrago nahi zintuzket baina
kale bitarte zabalegia da zure eta nire arteko hau.

Kare biziak ahazten ez gaituen arren,
malda atzetik mende bete odoltsua badatorkigu ere,
geure esku dago aitzina jarraitu ahal izateko
bermea.

Zuk jakin beharko zenuke nik baino hobeto:
nire herriak muga egiten du zure deserriarekin,
zure gogoak iparralderagoko atzerrietara narama
nahitaez.

Maite zaitut,
eta honek ez dauka zerikusirik semantikarekin.

# JOAN ZARENEAN

Joan egin zara, bederatzietako autobusak eraman zaitu
arrabalak behelainoetan galdurik zeuden unean.
Luzeagoak dira orain ostatutik goragoko karrika estuok,
debaldetan begiratuko ditut azal zaharreko hiztegiak.
Joan zara eta ohe hotzak bezala nago, lohasma,
zuk betetako hautsontziei beha, azken besarkadan gotortuz.

Amaitu da epea eta bidazti klandestinoekin batera
joan zara helbide gabeko exiliorantz,
non bakarturik bizitzen ikasten den,
non bakarrik lo eginez bizitzen den.
«Laster ikusiko dugu elkar» zenioenean,
esateko era bat baizik ez zela ulertu dut.
Ez dio axolarik zein kale kantoitan nagoen
edo nola itzuliko naizen etxera.

Han zaude
eta nire tristurak zure izena darama harrezkero,
oroimina baino gelditzen ez denean gogoratzeko.

# HOTEL BEL-AIR

Mahai gainean daude oraino
elkarrekin hustu genituen botilak,
basoerdiak, berba xaloak,
ausentziari eman nahi ez genizkion
musuketak, ezpain umelak eta
desira agerikoak.
Ezkerraldera okerturik segitzen du
Gernika koadroak,
eta Maná-ren azken cda baino ez da aditzen
leihoak zabalik dituen egun urdin honetan.
Mahai azpian daude, bestalde,
gure sandaliak,
oinetan ekarri hondar garauak eta
zure azal erantzia.

# ERDIZKA

Mugak gainditu behar ditugun honetan
nire eskuek ez dute non pausaturik,
ez dute non beroturik,
zure arnas epelak baino ez lituzke lasaituko.

Ez gaituzte elkarrekin nahi,
erdizka biziarazi nahi gaituzte.
Orain handiegi daukazun jertsea lakoa da
zure bakarraldia gauaren bestaldean.

Iristen ez den eguantzaren aiduru nago:
lur honek hauskor jarraitzen du oinpetan
eta etengabe komunikatzen ari den
telefonoa da zure erantzuna.

Lanbro guzti honek eta euri ezak
artega naukate, zure arnas epelaren zain,
nire dardara arakatzen duen inularrak
aurrez aurre begiratzen didanean.

Zail da egunero zure aldera egitea.
Hauxe da gaurkoak eman duena:
beste era batera izatea nahiko nuke baina
gaur hogei lerro baino ez dauzkat zuretzat.

# GAUEAN

Pilatutako egunkariak orrikatu ostean
amatatu nuen argia. Gauak ez zidan
zure presentziarik ekarri.

Argia izeki nuen berriro
paper mutur honetan
izkiria nezan zure ausentzia.

# GOIZEAN

Haizeak amorruz astindu kontraleihoak
esnatu nau kolpe batez.

Euria kraskatzen entzun dut
asfalto gainean, eta orduan ohartu naiz

ez zaudela nire alboan, han baizik,
erbeste deritzogun deserrian.

Jaiki eta esku hautsiokin
atzoko bihotz ezpalak jasotzeari ekin diot.

# HAREATZATIK

Zure katilu urdinean gosalduta nago.
Kaialderantz ikusi dut kaio saldo asaldatua
elkarrekin promenatzen ginen lekutik igarotzean.
Lainoak maindire zuri batekin estalia dauka Baiona;
goiz da, inor ez dabil hareatzan, eta
ogi erre usaina dator boulangerietik.

Ez dizut esan: nire patrikek zuloak dituzte
etxeko giltzen hortzek astiro janak.
Zuloetatik galdu zaizkit zure oroitzapenak,
patrikek ez baitute sentipenez fitsik ulertzen.
Goiz da, inor ez dabil hareatzan, eta
langarra dator mendebaldetik.

# LABARRAK

Elebakarra da gure ahanzturaren mintzoa,
alferrik bilatuko duzue hiztegietan.
Uhinek ez dakarte zure erbestearen berri.

Denbora azkentzen den mugaraino helduko naiz,
oinetakoak erantzi eta zure oinatzak galtzen diren
itsaslabarrak miatuko ditut. Aurkituko zaitut.

Uhinek ez dakarte zure erbestearen berri.
Nire oin bustiak zure oroiminean ibilitakoan
neure gain hartuko dut amodioa.

# EZ ERRAN EZETZ

Hiri desjabetuak habitatzen ditugu,
ez dago zer eginik; baina
loak ez ditzala zure babeslekuak betiko gorde:
borrokarako beharko ditugu.

Ez badut zure soa gehiago ikusten,
besteen begiradan bilatuko zaitut;
itzalen luzerak noizbait izanen du akabera.

Harresiotatik bota ditzakegu geure buruak
galerazo ez diezaguten agurra,
ken ez diezaguten ortzia.

Ilgorarekin batera joan zinen aspaldi;
ez gara herri bereko,
asago dago zure bestaldea.

Hor eta hemen
galerak min berbera duela jakin dugu.
Nik ez dakidan zerbait gordetzen dute
zure ezpainek.

# SENTIPENON ZERTUEZINA

Zigilurik gabeko gutunazal zuria heldu zait
arturratzearekin batera;
zertuezinean nabil zure idazkera.

Afal ostean, hirurogeiko kasetea
birbobinatzen dagoen artean,
kale hustuari eman dizkiot begi biak;
minegi ditut hitzak sentipenok deszifratzen hasteko.
Isilik dago dena.

Erreus, kaleko erbestera irten naiz,
irekita dagoen azken tabernan aurkituko
zaitudalakoan,
berriro denbora mendean hartuko dugulakoan.

Deserria deserriago egiten da
zure hutsunea hatz-mamiekin ukitzen dudanero.

# AGORRETA KARRIKA

# AKORDUETAN

Zure ahoan nire hitzek beste doinu bat hartuko lukete,
baina lorratzik utzi gabe joan zinen:
agurrik ez, gero arte soilik.
Oinotsek inarrosi gau berandua ez zen guretzat izan.

Zure itzulezina nire joanezina zen.
Itoginak ditu logale honek,
bihotz zulatuak ferekatu beste irtenbiderik ez dugu
debaldeko otoitzak lurperatzen ez dituguno.

Ez dago inor aurreko leihoan,
baina ez dut etxeko argirik piztuko hala ere.
Etxekalte ugari dabil katu hilen arima errariak jasotzen.
Gaur gaurkoz odolak gizen jarraitzen du gurean.

Bezperako akorduetan gordetzen zaitut,
urrunagoko memoria alokatuetan.

Zure itzulezina nire joanezina da:
euriak zuk laga hutsunea basitzen du gauero.

Zigarreta bat eskatu diot frantses txarrean
espaloian doan ibiltari ezezagunari.

# GOGORATZEN ZAREA

Gogoratzen zarea: gau izarratuan
zure titiburuak dastatzeko tirria nuen.
Onik irtengo ginen jakin gabe
sartu ginen oroimen debekatuetan.
Geurea zen su-lerro hura eta parte hartu behar genuen.
Haizearen hotzikarak laztandu zuen gure destaina.

Honenbeste ate morroilotu bizkarrean,
honenbeste bihotz zulatu osatu ezinik,
ez da nahikoa gure bozkarioa beratzeko.
Aurrez aurreko elkarrizketa ziurtatu beharko genuke
ezponda kargatuegiak bular gainera erori aitzin.
Ni ez naiz galera guztiak jasotzen hasiko.

Ez izan beldurrik,
hemen ez gaitu inork atzemango.
Nor bere buruari mintzo gatzaizkio
ondokoak entzun ez gaitzan.
Zure betazpi bustiek ez dute gezurrik esaten,

zure aho lehortuak egia baino ez dio.
Ez gaitezen kezka,
orbelak estaliko ditu gure oinatzak,
noizbait amaituko da guda honen luzera.

Baina zaude,
ondu ditzagun esku hutson gabeziak.
Iraungi dira badiako argiak...
zure ezpainak behar ditut
musua musu truk eman diezazudan.

# HITZ HAUTSIAK

Aurrez esan behar zenidan
zein zen gure egiteko nagusia.
Luzea izanen da gaurko gai zerrenda,
kooperatu beharra daukagu
nekez ailega baikaitezke akordura bestela.

Helbide gabe bizi zaretenoi
nora idatzi jakin ahal izan bagenu...
Baina ausente omen zaude,
eta hogeita lau ordu besterik ez ditugu
zubi-lanak egiteko.

Berantetsirik nago,
nire eskuak zurea bilatzen du etsi gabe,
lohiri desabitatua da gure auzoa zu gabe.
Nik ez dizut eskatu lehen su-lerrora joateko,
ezta ere gure artekoa betiko ahanzteko.

Nola esanen nizuke:
honela luze jarraituz gero,

deklaratu gabeko gerra bakoitza
maitatzeko aukera galdua da,
edo antzeko zerbait.

# UTZIDAZU

Utzidazu eztarri itxi hori artatzen,
esku zartatuak miazkatzen,
zure beldurra bezatzen.

Laburra dugu eguna;
odolaren zorra dakar odolak
huntzik hazten ez den bailara honetan.

Utzidazu izerdi hotz hori xukatzen,
ezpainen umela hozkatzen,
debeku eder honen soinekoa eranzten.

Laburra dugu eguna;
zatoz lehenbailehen
gauari betarik eman ez diezaiogun.

# NAZIOARTEKO ZUBIA

Mugaertz honek bizi gaitu nahitaez:
hemen herria amaitzen da
eta hor hasten besterria.

Honakoan Policia eta harakoan Police,
bonjour goizean, hasta luego arratsean.
Haranzkoan Frontière d'Espagne,
honanzkoan Francia a 1 km.
Eta zu arrotz zeure herrian.

Berantaroan jaio ginen nonbait,
bilatze eta atxilotze aginduen dekretupean,
Europako polizi-polikromia aberatsenetakoa
ei den gure mugaldean.
Terrorista arriskutsuenen zerrenda erakutsi ostean
zutaz galde egin dit poliziburuak.
Eta zu helbide gabe zure herrian.

# ATEA JO DUTE

Neure esku dagoen guztia egin dut
bebarruak ondo zarratzeko,
baina ez dago aditua zertan izan
nire bakardadea eta zurea
sinonimoak direla ulertzeko.

Arriskutsuegia litzateke orain partitzea,
oso bustiak daude karrikak.
Utzidazu esku horiek berotzen,
titiburuak ahora ekartzen,
zure erbestea alderik alde zeharkatzen.

Txandaka egingo dugu hausnarra
loak erabat har ez gaitzan.
Nire bularraren jabetza emana nizuke
ikaztutako begiek zainduko ez bagintuzte.

Bakartasunaren gotorlekuetan bizi gara ezinbestez,
etxetik irten eta deserria da lehenbiziko kalea.
Estratan behera doa arimarik gabeko
gabardinaduna,
eskularruokin etsi beharko dugu aurtengoa.

# ZIGARRO BELTZA

Itsumustuan izkiriatzen dizut
denboran galdutako herri bazter honetatik.
Hemen izan zinen berdantza-gauean.

Zutaz galdezka ibili dira hede zuriak atez ate,
auto banalizatuak iritsi dira gero
argi urdinen distiraz.

Ezetz esan diet,
ez zaitudala ikusi,
baina badakit arropak aldatu eta joan egin zarela.

Ezordua ageri da sukaldeko erlojuan,
eta beste argazkiekin batera
ikusi zaitut zuribeltzean zerrendatua.

Badakit hemen izan zarela;
gaizki amatatutako zure ducadosa piztu eta
eztul egin dut kontrako eztarritik.

# DEKLINABIDEAZ

Ez gara iragan hobe baten oinordeko zuzenak izanen.
Iritsiko da lubakiak uzteko tenorea.
Gorpuzki gehiegi dago egun
haien patu txarraz galdezka ibiltzeko.

Deklinabide zaila da bakardadearena.

Zuen lurreten hori
mailegu garestiegia ez ote den pentsatzen nago,
ez ote den zauri irekiaren antzo
orbandu gabe gelldituko.

Gaur, besteak beste,
etxe ondoko zumar eroriari buruz hitz egin nahi nizun,
txikitan gogoko zenuen hari buruz;
horregatik ari natzaizu muga-lerroz honainditik
behiala bazter utzitako kontu zaharrak gogora ekartzen.

Deklinabide zaila da iragan denborarena.

Zerrenda luzea den arren,
ez diogu galderak egiteari utziko.
Ostendu ezinezko afera da gaurkoa.

# GUTXI GORABEHERA

Beti egonen da maitatzeko beste desmaitatzeko
arrazoi.
Akorde berean egin genezake aldarri,
baina gure bihotz hezurrak beratu gabe daude
oraindik.

Dentistaren itxarongelan informe balistikoen
zain egoten ohituegiak ez ote gauden nago.
Aurkituko al ditugu burezur zulatuen egoitzak?

Deus ez da lehen bezala izanen,
ebazpide gogorra hartu beharko dugu
aurrerantzean deus izan ez dadin beti berdin.

Gaurkoz zure loa ez da portu txarra amesgaiztoak
itotzeko.
Hitz egidazu haragoko lurraldeez
itsasoak ispilu garbia izaten jarraitzen dueno.

Elkar maita badezakegu, zertan itxaron gehiago.
Nik ez zaitut asko edo gutxi maiteko,
gutxi gorabehera baizik.

# AGURRAREN GELTOKIAK

Beira zikineko autobusera igan zara.
Gorroto ditut beira zikinak dituzten autobusak.
Ez dakit norako txartela hartu duzun;
eta hemen
no ha parado de llover.

Nahi duzunean etor zintezke.
Gibelateak gako barik utzi ditut berdantzan,
zure premia dauka etxe hustu honek.
Zure azken geltokia zein den baneki,
zakur deslaien antzo hurbilduko nintzaizuke ondora,
baina ez;
en mis ojos no ha parado de llover.

Ez dut arriskuan ipiniko zure amesbidea,
hurbilago behar zintuzket nire ikuspegia doiesteko.
Beira zikineko leihoetatik atzerantz
begira imajinatzen zaitut, hiriari so,
CRSen kontrol baten ondotik igarotzen.

Begi lurmenduak dira nireak

gauaz honaindian;
se me ha inundado el corazón.

Gorroto ditut benaz
beira zikineko autobusak
eta gaizki grabaturiko kaseteak.

# 11 RUE IDUZKILEKU

# ONIK IRTENGO GARA

Urteak dira besterrira egin zenuela,
eta ez da asmatu zure urruntasuna neur lezakeen
erlojurik.
Ez dezakegu geureganatu hiri suntsituon amets
zaharra:
bestek lerrokatu dituzte pentze abandonatuak
kartaboiz egin muga-lerroak paratzeko;
ez dut nik ezarri langa hori hor.

Ozar deslaien loa profita dezakegu elkar maitatzeko;
ez zinateke ohaide txarra izanen
nire orpoak musukatu, nire lepoa guritu,
nire bihotza amiñi bat pozoitzeko.
Egun bateko pozak ordea
ez liguke edozertarako aitzakiarik eman behar.

Suebaki bat egin genezake berandu baino lehen,
baina bakarrik gelditu naiz gau honetan,
ezarri diguten debekuak ez du gehiagorako ematen.
Ez zure ez nire den hotza da maitasuna orain,
elurrak hotsik egin gabe
gure arteko isiltasuna areagotu duenean.

# ITXARONGELAN

Desgaraiak bizitzea egokitu zaigu
bideraezina dirudien amorruen galtzadetan.
Ez da oso zehatza gure egonguaren kokagunea,
baina tenorez gabiltza hurrengo belartzerako.
Esku zikinokin bazkaltzen dugu,
eta gogoetak metatzen beheko etxe abandonatuetan.

Begiak zaizkigu lahartu;
bideak ematen duen arte eginen dugu aurrera,
epeka ordainduko ditugu akorduaren harpidetzak,
baldin eta gure hobespena alferrikako ez balitz,
gure ilusioak lehenago emendatuko balira.

Ikusi al duzu?,
errobiek ur mehea dakarte gure zubipeetara,
atzezurrak bailiren hiriaren barrunbeak arakatu ditu
hezurrik gabeko haize gorriak.

Esadazu zer izen duen exilioak
espero den besarkada hori heltzen ez denean,
edo norantz doazen itsasbeheran galtzen diren
oinatzak.

Hamaika galdera ditut erantzunen zain
gutun ezkutu forman heltzear.
Ez dira gutxi neguko gaualdi honetan
loak hartu ezinik dauden bonbilla piztuentzat.

# ESPALOITIK

Argitzeko zegoen egunsenti hura itzarri zait:
debadio antzuetan ari ziren amiamoko urrunekoak,
hiria lo zegoen zure altzoan.

Oraindik ere ongi itxi behar ditugu kontraleihoak,
munduak itxaron dezake beste egun bat bederen.
Onduko dira pentze erreak, ez gaitezen kezka,
jantziko ditugu alferrik galtzen utzitako
larrumintz izerditsuak,
elkarri emanak biziko gara aspaldian legez.

Ezpainok elkar ulertzera beharturik dira;
harresiek harresi izaten jarraitzen badute ere
zuk ez didazu deus zor.
Zeruertz urratuetan sortu ginen, alboratu ezinik
samina.
Bazter utzitako lasterbideak akotatzen ditugu,
belarrak hartutako burdinbide abandonatuak
begiztatzen,
badaezpada, garaiz itzultzen zarenerako.

# AIDURU

Kiskalitako kale bazter honetan maita zintzakedan,
artean zedarritu ez zitezkeen debeku guztien kontra.
Zalantzarik gabeko behakoek
ematen duten sosegua bilatzen dut,
eta artega daude eskuok, besterik egiten ez balekite
lez.

Beste koordenada batzuk eman genitzakeen,
bazkalosterako batzarrak antolatu.
Kezkagarri izaten jarraitzen du egoerak ordea,
edo beste era batera esanda:
ez da zentralismo demokratikorako une aproposena.

Ez du atertzen zure desterruan,
abenida guztiak zeharkatu ditut zure bila.
Biontzako gero eta leku gutxiago dagoen arren,
hementxe behar zintudan, nire alboan.
Horregatik nago zapata ahantziak jasotzera zu noiz
etorriko.

# ARRATSEAN

*Denok gara geure ametsek erakusten digutena*

Johan Peter Uz

Nekez emango dizut atseden,
gaurko honetan uholdeka datoz
desira beteak eta desira hustuak.
Akidurak negutu aurretik,
zure ur edangarrietatik ase nahiz,
soin hastuari emango dizkiot ezpainok.
Ez dut amiltze honen ondoan bizi gura,
bazterrik bazter xerkatuko dut
zure soaren iparraldea.

Nahi duzuna esango duzu,
baina hoztutako ametsak jada ez dira amets.
Egidazu tokia aldamenean.
Esku zaurituak dakartzate
zure laztanek nire bizkarrera.

# AZKEN BERBAREN GORDAILUA

Nik ez dizut eskatu tristeziaren txostenik
irakurtzeko.
Astiroago begiztatu beharko genituzke
mugaertz honen zedarriak. On egingo liguke
ezpondak artatzeak, bizkar zigortuak arintzeak.

Isilarazi egin behar genituen ezkila hots haiek
ezagunen betazpiak denboraz araka genitzan.
Guda honek badu gure hilotzak hartzeko lain leku,
geure kabuz egingo ditugu azken metroak.

Nik esan diezazuket
non ezkutatzen ditudan desira gordeenak,
nora doazen gutunazalak antzara herrariak lez.
Baina nire ahaleginaren gainetik daude zure
mendateak.

Nik ez dizut eskatu garezur zulaturik haztatzeko,
inoren agindupean zelata egin dezazun.
Baina beti gordeko dugu azken berba
maitatu gabe utzi genituen haien gorazarrerako.

# HAIZE-GORDEAN

Hau ez da Passicot komandantearen karrika,
bestaldeko edozein karrika ez bada.
Zu eta ni lotzen gaituen zubiak
bederatzi bandera dauzka haizeari zabal emanak.
Alferrik ipiniko dizkiote barraderak itsasoari,
gesala beti iritsiko da gure oroitzapenetara.
Amets nazakezu naharo itsasarte txarra dugun
arren.
Ez naiz ni izan bihotz herdoildu hau
hemen ainguratu duena.
Ahulak dira ezinaren amarrak.

# ALDERRAI

Gatazka honek irauten duen bitartean
iraungo du distantziak gurean.
Isiltasun sakon honen muinora heldu naiz berriro.

Ez gara jaikiko eskuartean duguna amaitu arte.
Negu gorri honetan herrenka
hurbil naiteke munduaren ertzera,
beti baitago nonbait derrotaren batek utzitako
arrastoa,
gaur-biharretan gogora ekarri beharreko lubaki bat.

Inork gutxien espero duen lekutik helduko naiz,
erreka ondoko legarrak bailiren ahurka jasoz
galerak.

# ZERU GORRIAK

Zure ihesbidea hartu dut,
azken trena pasatu ondoren utzi dut nire karrika.
Ez nago agurra mastan ipintzeko prestaturik.
Kosta egingo zaigu mailadi luzeok igotzen,
baina aitzina egin beste biderik ez dugu.

Ez dago zertan estonaturik,
gure arriskuak zer dakarren badakigu.
Bada oraino maitatzeko adina teilatupe,
horditzeko adina botila hondo.
Gehiegi ireki genituen albateak,
zutaz galdezka zetozenei
ezer eskatu gabe sartzen uzteko.

Geure gain har genezake
hondamendi honen erruduntasuna,
maitasun honen errugabetasuna.
Larregi dira gainezka egindako erretenak,
inorenak ez diren zerraldoak,
zeru gorrien dardarizo.

Hitz erauziak barreiatuko zaizkigu atzaparretatik.
Eta hala ere zure ihesbidea hartu dut
nora naraman jakin gabetanik.

# PLACE D’ESPAGNE

# EGUNEKO ERRADIOGRAFIA

Atzo heriotzaren ondoan
esnatu ninduen iratzargailuak.
Bake-atelierrak dira ugaritu direnak
erretako kontainerren segidan.
Baina zuk badakizu
ez dudala sosegurik ekarriko zure etxera;
beste lubeta bat eraiki dezakegu etxe aitzinean
bakea heltzen denerako.
Egon badaude
diametroa zehazteke duten bihotz lehertuak.
Egun badaude
latex eskularruz
autopsien emaitzak betetzen dituzten txostenak.
Ez da atorra-hutsik ibiltzeko garairik aproposena.
Baina orain alferrik ari zara,
ez dituzu hilen arimak inon erroldaturik aurkituko.
Egunak joan badoaz
gelditutako erlojuentzat izan ezik.

# HUTSALDUZ

Hotz egiten du,
ez dabil nehor deserriko karriketan.
Denok nahi genuke ondoan norbait, maita gaitzan,
edota barraren atzean dagoenarekin
solas xume bat egitea,
elkarren arrimuan orkatila izoztuak berotzeko.

Ezgarai honetan idaztea egokitu zaigu:
gaitz da gure eginkizuna zehaztea mugalde honetan.
Maite zaitudala diodan bakoitzean
agian maiteko zaitudala esaten dizut,
ez baita nehoiz jakiten ahal
zer gerta daitekeen adio bakoitzaren ostean.

Zure denborak ez du geografia zehatzik izan sekula.
Ondorio garbirik ezin izan dugu atera,
baina onik irten gaitezke desolamendu honetatik.

Hogeita lau bala zorro aurkitu dituzte lurrean gaur,
hogeita lau bala zorro egun baterako,
biharamuna erredaktatzen hasterako.

Bular alde hustuekin egiten dugu aurrera egunero.
Bihar elkar ikusiko dugun ez dakit,
bihar eguna altxatuko duenetz ez dute konfirmatu
oraindik.

# BALIO ERANTSIAREN ZERGA

Ez gaude elkarri menia emateko prest.
Luberritu gabeko pentzeetan zahartu dira iragan urrunak,
galerarik astunenak lerratu zaizkigu lepo gainera,
eta ubideak ez daude guk nahi genukeen aldera ezarriak.
Gauaren betzuloetan pilatu ditugu garaitza amestuak,
ezin dastatuan gabiltza egunaren argia.
Izu-ikararen barrunbeetara heldu gara,
baina gaurko egunak zure ondora narama ezinbestean.
Luze iraun badezake ere,
ez ditugu behartuko gure bizkarrak besteren otoitzetara.
Aldian-aldian baino ezin zaitzaket ikusi;
kale hartuotan dena dago irabazteko,
bakea izan ezik.

# ZER DIOZU

Oso goiz jaiki zinen nire besartetik igandea
izateko.
Ez da heldu hona birika itorik, eztarri ebakirik.
Zaude lasai, hemen arriskutik lekora gaude,
zure begiek asago behatuko dute.
Badut zure oinazearen berri,
ez da moldaerraza izan zure bardako askieza
uhin-hartak gure amesgaiztoen labarra jo duenean.
Ezin errendaturik gabiltza gainera datorkigun
berdatea,
garaiz genbilzke haatik
bederatzi-lau-hiru aurre-zenbakia markatzeko.
Atzen-esku izateak badauka bere onura.
Fiteegi doan minutorratzak ez bezala
desizenez estalitako begitarteak nahi genituzke
ezagutu,
debekua ederragoa izan dadin.
Ez dut nire burua haien izuen landetara
entregatuko,
oraindik badugu ortuts ibiltzeko adina amildegi,
forentseak mende hau jasotzeko agindua eman arte
gutxienez.

# PAISAIA

Txingudiko badia estali zuen behelainoak
leihotik begiratu zuenean.
Hendaiako kale hutsen isiltasunak
ez zuen bere bularraldea baretu.
Ohera joan zen berriro,
Ducados bat erre eta gero
goizeko seietan ate joka etorriko zena
esnezalea izango ez zen ziurtasunarekin.

# NEGUKO EGUZKIA

Ez zinen garaiz heldu asteburuan.
Dena ez zen iragarri bezala atera:
CRSen sirena-hots urdinak ikusi genituen gau itoan,
eta bakarrik heldu behar izan du egunsentiak.

Hemen ez diogu elkarri betarik ematen,
bizkar ematen diogu gure bila datorren behakoari.
Biziak dira benaz mugaertz honen txarrantxak
oroitzapenak urratu gabe ekartzeko.

Susmo txarra hartu genion irabazpide honi,
eta ahanzturaren aurkako borrokak
ez du gehiagorako eman.

Erdibide hauxe da gure oraina, gure maitagunea,
eta gure eskuak intentsitate baxuko bake ezara
emanegiak ez ote dauden galdezka nabil.

# ARRAZOI DIALEKTIKOA

Zure ezpainen ikara senti dezadan hurbildu natzaizu,
atseden hartu nahi dute nire eskuek,
bihotz bero baten ondoan lekutu.

Karrikaz karrika ibilia naiz zure arrabalak zeharkatzen.
Alferrik dira dikeak gure oroientzat,
gordin ageri da ortzimuga
kartzelako patioan amaitzen diren oinatzentzat.

Ez dizut eskatuko minutu beteko isiltasuna
bakardadearen alde. Iragan denborak ez dira itzuliko,
baina ni zuganatu egin naiz harresi haien itzal laiotzetatik,
nire esku atzenduek zure barne dardara senti dezaten.

Berdindu gabe jarraitzen dute guk eraiki lubakiek,
molotov koktelez beterik daude kantoietako

kontainerrak;
saiatuko gara hala ere bebarruetan aterpea bilatzen.

Ahanzmenaren aurka egiteko
arrazoien bila nabil ainubeotan.
Mende honen atzealdeko orrialdeetan
jarraituko dugu arkatzez idazten.
Emadazu gaur harrika egiteko arrazoi bat.

# LARRU-ONTZAILEAK

Berun usain sarkorra duen lurretenean
larru-ontzaileak ikus daitezke larru eske.
Lur berdinketa eginen dutela agindu dute,
baina ez dezagun etsi,
hausterre egunak ez du behar oso urrun.

Etxe berriak eraiki behar omen dituzte
lehenbizikoz elkar ikusi genuen lur galetsietan.
Maratila behartuak daude gure bizkarrean.
Ezorduak agintzen duen garaiotan
zure arropak eta telefono-agendak eroan dituzte.
Nire ahurrek laztan urratua gordetzen dute joan
zinenetik.

Gaiztagin elkartea osatzen dugu
hitzordu bat egin genuelako.
Ez da malkoak lehortzeko ordua iritsi.
Elkar maitatzera arriskatu beharra dugu
bermadura hutsean eror ez dadin.
Epaia erreboka dezala galdetu du abokatuak.

# HEMEN HONETAN

Hemen odolak bere kasa ikasi du orkatiletarako
bidea,
eta bolbora usaina itsasten da memorian
polena kristalean bezala.

Hemen ez dago zertan bergogoratu itoen azken
gogoa,
eta zail egiten da begi hutsez
kondenatuaren bihotz lehertua ez ezagutzea.

Hemen Amistad Kalea
kale hutsa baino zerbait gehiago izanen da beti,
eta lagin eske hurbiltzen da forentsea atez ate.

Hemen
etxe-horma tindatu berrien gainetik
beti gelditzen da zer oroitua.

Hemen,
jendea oinetakoak eranzteko
astirik gabe hiltzen den honetan,

hemen,
eskuzabalegia den heriotzan
bizi da jendea.

# BIZITZAREN KATEBEGIA

*Jaiotzeaz kezkatu ez naizenez,*
*hiltzeaz ere ez naiz kezkatzen.*
F. García Lorca

Jakinaren gainean geunden:
kontu handiz ibili beharra dago mugalde honetan.
Bihar goizean oldozmenak odolusten ikusiko ditugu
kedarrak lohitu izaretan.

Erretako zeruertzak ditugu aldarrikatuko.
Bide horrek ez garamatza inora...
ailega ezina dirudi elkarlanak eta
bertan behera utz genezake ahalegina.

Beste lubeta bat aurkitu dugu
abraizeak jotako lautadan;
guk ez dugu inoren hezur urratua lurperatu,
baina inork ez gaitu heriotzatik salbuetsiko.

# BITTOR BAR EXPO

Antxetek zerua hartu dute agorril sargorian.
Abiadura Handiko Trena iritsi da Hendaiako
geltokira,
ez da ordea inor ezagunik jaitsi,
eta nire eskuek zure gorputza dute ments.

Gaur ezberdin da dena;
jaiotze-tasak gora eginagatik
forentseek gorpuak pilatzen dituzte autopsiarako.
Ez esan niri dena berdin denik.

Kontuarrak edalontziz beteriko ordu txikietan
maitatua sentitu dut neure burua...

Berandu dela ohartuko gara
belar-paretak denbora estaliko duen egunean.
Min emango digute enaren hegaldi hurbilek eta
Bidasoa gaina zeharkatzean zu hemen ez izateak.

Gaur ezberdin da dena;
zabor biltzaileen kamioi horia etxe aurretik

betiko tenorean pasa den arren, zu ez zaude.
Zapi garbi bat bezala urratu da argia zeruertzean.

Maitatua sentitu dut neure burua
kontuarrak edalontziz beteriko ordu txikietan...

# CARREFOUR DES ÉVADÉS

# CARREFOUR DES ÉVADÉS

Uhainak lokartu aitzin behar duzu hona.
Oroimina baino ez da hazten paretetan,
laburregiak dira nire hatzak
zure larrumintza akordura ekartzeko.

Jendeak dio partitu zarela;
gaulehenean ametsak berotzen ez bazaitu,
alboan nauzula ahantzi duzulako izanen da.

Beti eginen dugu ihes Askatasunaren Etorbidetik,
arrastoak zaldi-apatxen pean desagerraraziz.
Mugak mugaegi izango dira orduan ere
gure bakardadearentzat.

Joan egin zara
noizbait itzuliko zaren jakin gabe,
eta muga honek ez dit aurrerago joaten uzten.

# UDA BATEZ ERBESTEAN

Aurpegiak eguzki alde jarri ginen
amak zabaldu maindireak lez, eki gosez.
Arropa guztiez biluzi zinen,
eta zure azal beltzaraneko triangelu zuriak
Landetako duna argia iduriz
etzan zinen hareatza galgatan.

«Ez hator nirekin?» egin zenidan galde
betaurreko beltzak jantzi ahala.
Ezetz ihardetsi nizun buru-keinu batez,
zure ibileraren kadentzia hobeto begiratzearren.
Gesal zaporea utzi zidaten zure ezpainek,
eta pinudien artean urrundu zinen
lehen ekarri zintuen autobus berean.

Panoan jartzen zuen:
ezkerrera Baiona, eskuinera Erbestea.

# AILEGA EZIN

Zure ondora behar nuen
baina ez naiz heldu hitzordura.
Ez da akordatzen ez naizelako
—hotz egiten du bide bazterrean—,
zure gomutak aletzen ari naiz
Campsa gasolindegiko kafetegian
izar urrunenari begira.

Iparrerago joz hel nintekeen
ausentziak lekutzen diren itsaslabarrera.
Ezagunegi egin zaizkigu andabideak azken aldion:
pinu hezurren dardarak,
eztarri urratuen negar isilak;
baina ez dugu ausardia nahikorik izan
hasperen etsituak jasotzeko.

Hemen ez dugu sentitu
haize-etenak dakarren barealdirik,
hartuak ikusi ditugu zure karrikak,
mugaertz honek ez digu bakerik eman nahi.
Nire berbak hiltzera datoz
paper zuriaren gainera.

# EXILIOA, ESATE BATERA

Barda bakardadeak behatu zintuen bi begiokin.
Sudurra kristalaren kontra zapaldurik zuela
liburu bat hartu eta ohean sartzen ikusi zintuen.

Horixe baino ez da exilioa:
bakartasunean ohera daramazun liburua
eta liburuan ageri den ohe bakartua.

# SORTERRIARI

Deserrituak berea ez den ohean egingo du lo gaur
ere,
berea ez den kikaran edango du kafea eta
berea ez den etxeko leihotik ikusiko du ilargia.
Apurka-apurka, berea ez den herria maitatzen
hasiko da,
eta berea ez den itsasertzetik begiratuko dio
sorterriari.

# BESTALDERA BEGIRA

Hara azaldu ginen denok zu izan ezik;
Herri Urrats bezpera zen,
estreinakoz bandera gorria ipini zuten hareatzan.
Hiztegigileek ez dute jaso ausentzia honen
esangura,
baina saia gaitezke berbaro galduak berreskuratzen,
inoiz esan ez diren eleak konortera ekartzen.
Gaur zinemara joan nahi nuen zurekin,
aterpe bat bila genezan besterik gabe,
ezaupide berriak egin genitzan.
Bada hor berandu ixten duten tabernarik,
nahiago zintuzket, hala ere, ametsen hegoaldean.
Nola adierazi zure iparrorratzak markatzen duen
ihesa
ahanzturara emanegiak garen honetan?
Maizegi uzten ditugu albo batera
mugatik haragoko egonguak.
Izan gabe izan beharra da deserrituaren patutxarra;
eta etxe barruko diaspora guk asmatua ez den
arren,
bestaldera begiratzen dugu
ahanzturari aitzi egin nahian.

# BERMERIK GABE

Ez dut nik jaurtiki amets hori hormaren kontra,
ez naiz ni izan
zurezko mailadietan gora isiltasuna
oinutsik igotzen sentitu duen bakarra.
Ezpain arrotzek itzartu naute goizaldean;
baketze honek ez digu ezeren bermerik emanen.

Denok entzun dugu azken desarra,
odola gure praka barrenak zipriztintzen.
Zuk bezainbat berba bildu dut nik ere,
baina kontu egin behar dugu
Bidasoak gehiago bana ez gaitzan.

Bakartuak bizi gara
oroimenak lagatako hutsunean.

# AZKEN TRAGOA

Hau ez da zuk nahiko zenukeen mundua,
baina munduak egiten gaitu, ez alderantziz.

Zureak ei dira
gauaren horman aurkitu dituzten hatz-markak.
Garagardo beltzak eta isiltasunak laguntzen naute
bakarlan honetan.

Jaso dut zure mezua;
desgaraiz bada ere inoiz ez da berandu
desagertuen zerrenda luzeak irakurtzeko.
Begirada bakoitza erbeste berri bat da zure
karrikan.
Ezinbestez jende gabeko ostatuetan nabilkizu
ukalondoak kontuarrean tolesturik.

Esan dutenez,
txarrantxa gehiago ipini dizkiote egunsentiari.
Ez dut maite azken tragoaren bakartasuna.
Ezin dugu atzera egin honezkero:
zail da gurean elkarlana,

baina urruntze honetatik egin behar dugu irtenbidea.

— Atera beste Pelforth bat, arren.

# OROITZAPENA

Zerbaiten ostean beti dago gordea oroitzapen bat;
horregatik, zigarreta bat ahitzen zaigunean
itxaro dugun pertsonaz oroitzen gara,
edo gosaldu ondoren
esneak katilu hondoan utzi arrastoekin gogoratzen
gara.
Negu gorria heltzean
maitearen esku deserrituak dakartzagu akordura.
Kontua da, beti dagoela oroitzapen bat zerbaiten
ostean.
Esperantzaren adinaz galdetzen dugunean
inork ez du erantzun nahi izaten.
Leihoaren ondoan esertzean
itsasoaz oroitzen gara,
eta itsasoaz oroitzean
galdutako lagunak ekartzen ditugu burura.
Oroitzapena da urratzen ez den bandera bakarra,
ezabatzen ez den oinatz bakarra;
horregatik, gaua zeharkatzen dugunean
zure ziegaren iluntasuna datorkigu gogora.
Amets lokartu baten atzean

beti dago harago joan nahi bat,
itsasbehera bakoitzak oroitzapen biluzi bat lagatzen du
memoriaren hareatzan.
Egun zoriontsu baten ostean
aspaldiko argazki zuri-beltzak begiratzen ditugu.
Zuetaz oroitzen ote garen jakin nahi duzue
maite gaituzuenok,
baina ez gara gai galdera horri erantzuteko.
Patio bustiarena da euriak uzten duen oroitzapena,
ate morroilotuen akordua da
gelditzen zaigun oroi-bilduma bakarra.
Lurrak gure hezurren oroitzapena gordetzen du jeloskor;
horregatik, ezkilen ostean
beti gelditzen da oroitzapen bat,
eta oroitzapen baten ostean
beti dago norbait.
Horregatik ba,
horregatik hain zuzen ere.

# BAR-BRASSERIE

Zu ikustearren hartu dut autobusa hirira.
Bar-brasserie batean sartu naiz zu noiz agertuko.
Ez da nirea zuri hoska dabilen eztarri urratu
bakarra,
ezta zurea ere deserrian dagoen behako bakarra.
Garagardo beltz eta kafe txar artean igaro dut
eguna.
Ostalerak bar-brasseriea itxi arte egon naiz
zalantzaren eserlekuan jesarrita, berandu egin den
arte.
Ezetz esan diot ostalerari: «Ez nago inoren aiduru»,
eta kikaran gelditu den gau-hondar mikatza edan
dut.

Zutaz oroit egitea
orri galdu bat izan da neguko egun motzenean,
erbeste isil bat izan da, barruan ainguratua.
Etorritako bidetik noa zu ikusi gabe
azken orduko Pesa-n:
«26 St. Sébastien (péage)».